

EROMENA... AMEN

Iban Izagirre
Azpeitia, 13 urte

izen gabeko gau galduan
baso beltzaren begirada lausoak
preso hartu nau
malko minduak odola du islada
heriotzaren leiho
tristuraren sufrikarioa
harro da hedatu

eta bizitzea
ziega zait bilakatu
eromenaren irrintzi
herdoilduaren eraginez

saminaren pozoin zornatua
ene habeen amaraunean itsatsi da
erraietatik horditurik ihesi

garrasi, barrutik usteltzen naiz hasi
oihuminetan, hiltzaren loak
bere altzoan behingoz har nazan

eromena
omen
ero
men
Amen!